

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5250

AGINDUA, 2022ko azaroaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programarako deialdia egiten duena.

Hezkuntza Sailaren iritziz, ikertzaileentzako mugikortasun-programak tresna egokia dira komunitate zientifiko eta teknologikoa prestigio handiko ikertzaileekin harremanetan jartzeko, bai eta unibertsitateko irakasleen ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratu eta perfektionatzeko ere.

Kontuan hartu da Lehendakariaren irailaren 16ko 18/2020 Dekretua (2017ko apirilaren 21eko EHAA), zeinaren bidez sortu, ezabatu eta aldatu baitziren Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak, eta finkatu baitziren horien egitekoak eta jardun-arloak.

Halaber, kontuan izan behar dira, batetik, 1991ko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren jardunbide orokorra arautzen duena eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, jardunbidea eta betebeharrak ezartzen dituena; eta bestetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testuategina onartzen duena.

Aintzat hartu da, orobat, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako oinarritzako araudia, bai eta laguntza eta dirulaguntzei aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ere.

Oinarri gisa hartu da Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren konturako gastu-espeditenteak aurrez izapidetzeko modua arautzen baita.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da dedikazio eksklusiboarekin ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egitea, norgehiagoka-erregimenean, bi helburu hauek betetzeko: batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzea, eta, bestetik, ikerketa-taldean lehiakortasuna eta gaitasuna hobetzea.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik egongo baita, edo, bestela, goi-mailako lotura eta trukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programak bi modalitate ditu:

A) A. modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, langile iraunkorrei zuzendua.

B) B. modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, langile ez-iraunkorrei zuzendua.

2. artikulua.– Egingo diren proiektuak.

1.– Mugikortasun-egonaldietan egin beharreko proiektuak deialdi honetan adierazitako helburuari egokitu behar zaizkio.

2.– Honako printzipio hauek errespetatu behar dituzte proiektuek:

a) Honako adierazpen eta hitzarmen hauetan ezarritako oinarritzko printzipioak: Helsinkiko Adierazpena (Munduko Medikuntza Elkarteak); Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena; Giza genomari eta giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala, eta ikerkuntza biomedikoari, datu pertsonalen babesari eta bioetikari buruz Espainiako legedian ezarritako baldintzak.

b) Gizakiekin ikerketak egitea edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek Ikerkuntza Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legean xedatutakoa bete behar dute. Era berean, lege horri lotuta egongo dira jatorria giza-enbrioietan duten zelulak eta ehunak edota horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea espezifikoki eskatzen duten ikerkuntza-proiektuak.

c) Saiakuntza klinikoak xede dituzten proiektuek Medikamentu bidezko saiakuntza klinikoak arautzen dituen abenduaren 4ko 1090/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar dute.

d) Animaliekin esperimenduak egitea dakarten proiektuek indarrean den lege-araubidean ezarritakoa bete beharko dute, eta bereziki otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa, esperimenduak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako nahiz irakaskuntzarako erabiltzen diren animaliak babesteko oinarritzko arauak ezartzen dituenak.

e) Genetikoki eraldatutako organismoak erabiltzea dakarten proiektuetan bete beharko da, batetik, Genetikoki eraldatutako organismoak bakarturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legea, eta bestetik, lege hori garatzen duen arau orokorra onesten duen urtarrilaren 31ko 178/2004 Errege Dekretua.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuak Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hori garatzen duten errege-dekretuetan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, agente biologikoekin kontaktuan izatearen ondoriozko arriskuei dagokienez.

g) Material genetiko hartzea edo trukitzea xede duten proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena; Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Ituna, eta uztailaren 26ko 30/2006 Legea, Mintegiko Haziei eta Baliabide Filogenetikoei buruzkoa.

3. artikulua.– Destinoko zentroak.

1.– Honako hauek izan daitezke destinoko zentro: laguntza-eskabideak aurkeztutako proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleiturik dituztenak, halako moldez ezen, berme baitira perfektzionamendu profesionala eta proiektuko helburu zientifikoak lortzeko.

2.– Destinoko zentroek, betiere, eskatzen dute hautagaiak bizileku finkoa aldatzea, onartutako mugikortasun-aldi guztian.

3.– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egon beharko dute destinoko zentroek.

4. artikulua.– Laguntzen finantzaketa.

1.– Agindu honetan arautu laguntzak finantzatzeko, 200.000 euro bideratuko dira, era honetan banatuta, 1. artikuluan aipatu bi modalitateen arabera:

A modalitatea: 150.000 euro.

B modalitatea: 50.000 euro.

Modalitateetako batean ez bada agortzen aurrekontu erabilgarria, soberakina beste modalitateko proiektuak finantzatzeko erabili ahal izango da, baldin eta eskaerok ebaluazioa gainditu badute eta, lehenetsun-ordenari jarraikiz, ez badute dirulaguntzarik jaso, modalitate hori finantzatzeko hasiera batean bideratutako diru-hornidura nahikorik ez zegoelako.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatutako eragileak dira laguntza hauen erakunde onuradunak, eragile-kategoria hauetakoak:

- Unibertsitateen ikerketa-egiturak.
- Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak.
- Ikerketa Kooperatiboko Zentroak.
- Teknologia Zentroak.
- Ikerketa Sanitarioko Institutuak.

Edozelan ere, honako hau hartuko da erakunde onuraduntzat: ikertzaileak integratzen dituen, entitate horrek nortasun juridiko propioa badauka, betiere.

Eskabidean eta deialdiaren ebazpenean izendaturik agertzen diren ikertzaileentzako eta jardueretarako soilik erabiliko dituzte laguntzak erakunde onuradunek.

2.– Ezingo dira agindu honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan inguruabar hauetako batean dauden pertsonak edo erakundeak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izan direnak, hauetako delituren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin dutenak, prozeduraren batean kaudi-mengabekotzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratu daudenak (salbu eta horretan itun batek eraginkortasuna hartu badu), epailearen esku-hartzearen menpe daudenak edo desgaituta daudenak, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoelarik.

c) Administrazioarekin egindako edozer kontratu ebazpen irmoz indargabetu bada, dena delako kausagatik errudun deklaratu gero.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo pertsona juridikoen ordezkari legala dutenak egotea honako lege hauetan jasotako kasuren batean: martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena, eta abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen batezartzearen arautzea; edo Hauteskundeen Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarikikoak betetzen ez dituztenak, erregelamenduz zehazten den moduan.

f) Araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen batean dutenak egoitza fiskala.

g) Ordaindu gabe dituztenak dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak, bat etorritik erregelamenduz zehazten denarekin.

h) Dirulaguntzak lortzeko aukera galdu dutenak, ebazpen irmo baten bidez zehatuta egoteagatik.

i) Dirulaguntzak jasotzeko galarazpenek honako enpresei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, pentsa badaiteke –eraldaketa, bategitea edo ondorengotzaren ondorioz– beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eta horietan ere pertsona edo inguruabar haiek izan badira.

e) eta g) letretan aipatzen diren inguruabarrak bete beharrekoak dira bai deialdiko dirulaguntzen erakunde onuradun bihurtzeko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko; beraz, egiaztatuko da bete egiten direla dirulaguntza emateko orduan eta ordainketak egiteko orduan.

3.– Ezingo dira inolaz ere agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. zenbakietan aurreikusitako debeku-egoeraren baten eraginpean dauden elkarteak.

Era berean, ezingo dira onuradun izan elkartearen eraketan administrazio-prozedura eten bazaie ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalik aurkitzeagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere ez badago dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela xedatzen duen ebazpen judizial irmorik.

6. artikulua.– Egonaldien eta hautagaien ezaugarriak eta laguntzen zenbatekoak.

1.– Egonaldien ezaugarriak eta baldintzak.

a) Egonaldiak 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasiko dira.

b) Egonaldiak gutxienez bi hilabetekoak izango dira, eta gehienez ere seiokoak.

c) Emate-ebazpenean zehaztutako egunetan hasi beharko da egonaldia. Salbuespenez, eta egonaldia hasi baino lehen, hasteko eguna atzeratzeko eskatu ahal izango da, behar bezala arrazoitutako idazki baten bidez. Ikerketa Zuzendaritzak erabakiko du egonaldi hori atzeratu daitekeen, eta, behar bezala justifikaturik dagoenean, baimena eman ahal izango du. Ikertzaileak ezinbestean 2023ko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko du destinoko zentroan.

d) Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango da laguntza.

e) Proiektua destinoko zentro bakarrean egingo da.

2.– Egonaldietako absentziak, aldaketak eta etenak.

a) Etenik gabe egin behar dira egonaldiak zentro hartzailean. Proiektutik datozen zioen ondoriozko absentziak talde hartzaileko arduradunaren adostasunarekin egin beharko dira, eta erakunde onuradunak Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio, kanpoan zein egunetan egon den eta hartarako arrazoia zein izan den zehaztuta.

b) Justifikatutako arrazoiengatik, baimena eman ahal izango da ikerketa-egonaldia aldi baterako eteteko.

COVID-19aren pandemiak edo antzeko egoerek kalte nabarmena eragiten badute ikerketa egonaldian, kalte horren ondorioz ezinezkoa bada etenik gabe garatzea talde hartzailearen lan-ildoan integratutako ikerketa-proiektua, eta hori dela eta egonaldia eten behar bada, aukera egongo da etenaldiko denbora berreskuratzeko.

Erakunde onuradunak aurkeztu beharko dio etenaldia egiteko eskabidea Ikerketa Zuzendaritzari, eta eskabide horrek talde hartzaileko ikertzaile arduradunaren adostasuna izan beharko du. Etenaldia egiteko arrazoia zehaztu beharko da, eta egonaldia osatzeko data berriak adierazi.

Egonaldi hori 2023an hasi beharko da, eta, salbuespenak salbuespen, bat etorri beharko du zentro hartzailearen aldi akademikoarekin eta/edo ohiko jarduerarekin.

c) Egonaldiez baliatzeko epeetan nahiz dirulaguntzak emateko hasierako baldintzetan jazotzen den aldaketa orok izan beharko du Ikerketa Zuzendaritzaren baimena.

Etenaldia egiteko eskabidea erakunde onuradunak aurkeztu beharko du, eta zentro hartzailearen adostasuna izan beharko du. Edonola ere, egoki arrazoituak izan beharko dute eskabideek, eta, beharrezkoa bada, dokumentatuak. Proposamen egokia egitearren, egoki iritzitako txostenak eskatu ahal izango ditu Ikerketa Zuzendaritzak. Aldaketek ez dituzte funtsean aldatuko laguntza emateko izan ziren baldintzak, hasteko epeei, egonaldiari, proiektuari, ikertzaileari edo zentro hartzaileari dagokienez, salbu eta horretarako kausak behar bezala egiaztatuak badira.

3.– Ikertzaileak.

Ikertzaile hautagaiak honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Lotura funtzionariala edo kontratuzkoa. Eskatzaileek lotura funtzionariala edo kontratuzkoa izan behar dute, lanaldi osoan aritu behar dira, eta zerbitzu aktiboan egon behar dute. Hautagaiak erakunde eskatzailearekiko duen lan-lotura egonaldiaren hasieran egiaztatu beharko da eta egonaldia amaitu arte iraun beharko du.

a.1.– A. modalitatea: erakunde eskatzailearekin lotura iraunkorra edo kontratu mugagabea duen ikertzailea.

a.2.– B modalitatea: erakunde eskatzailearekin lotura iraunkorrik ez duen ikertzailea. Indarrean den loturaren indarraldiak gutxienez mugikortasuna amaitu artekoa izan behar du.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikulua dela-eta lotuta dauden ikertzaileek, ez eta obra- edo zerbitzu-kontratu baten bidez kontratatuta dauden ikertzaileek ere.

b) Doktore izatea. Doktoregoak 2017. urtea baino lehen lortutakoa izan behar du.

c) Erakunde eskatzailean gutxienez bi urteko antzinatasuna egiaztatzea.

d) Laguntzarik jaso ez izana, ez programa honen aurreko deialdietan, ez eta antzeko ezaugarriak dituen eta 2021ean edo 2022an ikerketa-egonaldi bat egitea dakarren beste edozeinetan ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gero, laguntza-eskabidean jakinarazi gabeko ikerketa-egonaldi bat egiten badu ikertzaileak edo halako bat esleitzen bazaio, horren berri eman beharko dio Ikerketa Zuzendaritzari.

e) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean badaude eta talde horrek jaso eta indarrean badu «A» edo «B» taldea izatearen errekonozimendua, EAeko unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerak babesteko laguntzen deialdiaren gaineko ebazpen bidez.

f) Eskabidea egiteko unean, baldintza guztiak beteta izan beharko dira, zerbitzu aktiboan egotearena salbu, eta hala eutsi beharko zaie egonaldia hasten den egunetik egonaldia amaitu arte.

4.– Laguntzen zenbatekoa.

a) Hileko 1.800 eurotik 2.700 eurora bitartekoa izango da ostaturako eta mantenurako laguntza. Destinoko herrialdeko baldintza ekonomiko eta sozialen arabera finkatuko da zuzkidura, eskabi-deak aurkezteko epea amaitzean, Nazioarteko Diru Funttsaren datu hau kontuan izanik: herrialdeen Barne Produktu Gordina (BPGd per capita, \$ ppp).

NDF-Nazioarteko Diru Funttsak emandako xede herrialdeen per capita errentako (\$ ppc) zifretatik abiatuz zehaztuko dira laguntzaren hileko zenbatekoak. Espainiako per capita errenta gisa 100 hartuz kalkulatzen da herrialde bakoitzaren errenta-indizea. 100 indizea edo txikiagoa duten herrialdeek hileko 1.800 euroko ordainsaria izango dute; gainerakoei, kalkulaturako indizearekiko proportzioan igoko zaie dagokien esleipena, 2.700 euro arte gehienez.

b) Laguntza gehigarria emango da destinoko zentrorako joan-etorriko bidaia bakarra guztiz edo partez ordaintzeko. Honako taula hau hartuko da kontuan zenbatekoa zehazteko:

Abiapuntutik helmugarainoko distantzia	Bidaia-gastuetarako laguntza (euro)
1.000 km arte	300
1.001-2.500 km	600
2.501-11.000 km	1.000
11.000 km-tik gora	1.200

Kilometroak kalkulatzeko, erreferentziatzat hartuko da <http://es.distance.to> estekaren bidez egindako kontsultaren emaitza Agindu honen ondorioetarako, eskatzaileak lantokia duen probintziako hiriburua hartuko da jatorriko hiritzat.

Oro har, joan-etorriak garraibide publiko kolektiboetan egingo dira, eta ibilgailu partikularra erabiltzeko baimena emango da helmugara garraibide publikoetan iristea ezinezkoa dela frogatzen denean. Aurrekoa gorabehera, norberaren ibilgailua erabiltzeko baimena eman ahal izango da, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta. Baimena egonaldia hasi baino lehen eskatu beharko zaio Ikerketa Zuzendaritzari, aplikazioaren bidez.

Bidaian norberaren ibilgailua erabiliz gero, kilometroko 0,29 euro ordainduko dira justifikatutako kilometroak.

Joan-etorriak egiteko bisa izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

c) Deialdi honen bidez finantzaturako jardueretan parte hartzen duten erakunde onuradunek bidaiari laguntzeko aseguru bat izango dute, baldin eta egonaldiak atzerrian egiten badira; eta, interesdunak hala eskatuz gero, ezkontideak eta 25 urtetik beherako seme-alabek ere baliatu dezakete, egonaldian berarekin badira. Aseguru hori izatezko bikoteentzat ere baliagarri izango da, hala direla frogatuz gero ordenamendu juridikoan onartutako edozein probaren bidez. Laguntzaileen egonaldiaren datek bat egin beharko dute ikertzailearen egonaldiaren datekin.

7. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta haiek aurkezteko epea.

1.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 14.2 artikulua aplikatuz (administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoz izateko betebeharra ezartzen du), eskabideak inprimaki baten bidez bete beharko dira (I. eranskina). Inprimaki hori telematikoki eskuratu ahal izango da Hezkuntza Sailaren egoitza elektronikoa, helbide elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0286308>

Eskabidea elektronikoki sinatzeko, erakunde eskatzaileak erakunde-txartela izan beharko du, eta, halakorik izan ezean, legezko ordezkariak alta hartu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ordezkarren Erregistroan (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua - <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>).

Aplikazioan, ziurtagiri elektronikoa bidez sartu beharko da (honako helbide elektronikoa honetan argitaratuta daude elektronikoki identifikatzeko onartutako sistemak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>)

Aplikaziora sartzen diren erakundeek baimena ematen diote Ikerketa Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoa baita) nortasun-datuak administrazio eskudunean egiazta ditzan bitarteko elektronikoen bidez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bidez.

2.– Behin eskabidea osorik beteta, eta 8. artikuluan zehaztutako dokumentu erantsiak aplikaziora sartuta, erakundeak edo legezko ordezkariak elektronikoki sinatu beharko du eskabidea, betiere 1. zenbakian adierazitakoarekin bat etorritik; eta orduantxe geratuko da erregistraturik eskabidea. Sinadura elektronikoa bidez egindako eskabide bat baliozkoa izateko, erregistratuta geratu behar du. Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuen erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoa bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

3.– Nolanahi ere, eskarian erantzukizunpeko adierazpen bat ere sartu behar da (II. eranskina), azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan 6. apartatuan aipatzen dena (legegintza-dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 5/2010 Legearen bidez sartu baitzen).

4.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. artikulua.– Eskatutako dokumentazioa.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, bai eta aplikazio telematikoa sartu ere:

a) Egonaldian zehar egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria. Egonaldiak hautagaiari eta erakunde onuradunari ekar diezazkiokeen onurak jasoko ditu. Gehienez hiru orri.

b) Hautagaiaren curriculum vitae, inprimaki normalizatua edo baliokidean, zeinean jasoko baitira ikerketa-jardunean izandako azken sei urteetako merezimenduak.

Hautagaiaren baten kasuan ikerketa-lana eten bada egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzio edo harrera; edo liberazioa unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia,

Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak hartzeko, egiaztatutako etenaldiarekiko proportzionalki luzatuko da ebaluatzeko ikerketa-jardueraren aldia, salbu eta 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatiko etenaldietan, horietan seme edo alaba bakoitzeko urtebete luzatuko baita ebaluatzeko aldia; edonola ere, gehienez 6 urte gehiagoz luzatuko da ikerketa-jarduera, kasu guztietan.

c) Zerbitzu-orria, zeinean jasoko baitira antzinasuna, eta hautagaiaren eta erakunde eskatzailearen arteko kontratu-harremana.

Zerbitzu-orria aurkeztu ezin bada, erakunde eskatzailearen ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

d) Erakunde eskatzailean zerbitzu aktiboan egotearen ziurtagiria. Eskaera egin den unean zerbitzu aktiboan egotearen ziurtagiria ez bada aurkezten, aipatu dokumentua aurkezteko 15 eguneko epea emango da egonaldia hasi aurretik.

e) Ikerketa-jardueraren aldi baterako etena justifikatzen duten egiaztagiria, 11.2.B artikuluan jasotako kasuen arabera.

f) Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa, zeinean jasoko baita ikertzaile-talde hartzaileko arduradunaren curriculum vitae, azken sei urteetako, formatu normalizatua (txantiloia aplikazioan jasota dago).

g) Laguntza jasoz gero, ikerketa-taldeko arduradunaren konpromisoa, eskatutako epealdian hautagaia bere taldean onartzekoa. Dokumentu horrek egonaldiaren helburuari eta garatuko diren jarduerari buruzko deskripzioa jaso beharko du.

h) Hautagaiari lizentzia ematea edo emateko konpromisoa hartzea. Erakunde eskatzaileak emango du lizentzia, eta ikerketako errektoreordeak edo pertsona eskudunak sinatuko du. Dokumentu horrek egingo den egonaldiaren data eta helburua jaso beharko ditu.

i) Hautagaiaren ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago dokumentu horren txantiloia bat.

j) Ikerketa-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioan, eskuragarri dago dokumentu horren txantiloia bat.

k) Erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduko 22. artikuluan. Organo kudeatzaileak behar beste aldiz egiaztatuko ditu zerga-eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, horretarako ez du haien baimenik behar izango, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren arabera. Hala ere, erakunde eskatzaileak berariaz uko egin diezaioke baimen horri, eta, halakorik egiten badu, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

Baldintza hori bete beharko da hala erakunde onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

9. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ikerketa Zuzendaritzak kudeatuko ditu agindu honetan aurreikusitako laguntzak.

10. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 8. artikuluan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Ikerketa Zuzendaritzak 10 eguneko epea emango die eskabide-sina-tzaileei hutsak zuzendu ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Hala agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Arau-bide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Zuzentzeko errekerimendua jakinarazteko, 13. artikulua 2. apartatuan ezarritako prozedura beteko da.

11. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak. Batzorde horrek honako kide hauek izango ditu: Ikerketako zuzendaria, batzordeburu gisa; Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria, eta Ikerketa Zuzendaritzako teknikari bat, batzordeko idazkari gisa.

Batzordeak eskabide bakoitzari buruzko txostenak eska diezazkieke hautagaiak diharduten arloetan itzal handia eta ebaluazioan esperientzia duten ikertzaileei.

Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari igorriko dio laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena.

2.– Laguntzen esleipendunak hautatzeko, batzordeak irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eskabideak balioesteko orduan:

A) Egingo den proiektuaren edo jardueraren bideragarritasuna eta interes zientifikoa, destinoko zentroa eta proposatutako egutegia kontuan izanik, betiere. (12,5 puntu).

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Helburuen zehaztapen-maila. (1,5 puntu).

2.– Proiektuaren berritasuna eta garrantzia. (2 puntu).

3.– Eskatzailearen eta talde hartzailearen gaitasuna proposatutako helburuak burutzeko. (2 puntu).

4.– Metodologia, lan-plana eta aurreikusitako kronograma egokitzea. (3 puntu).

5.– Zer emaitza lortzea espero den eta zer onura ekar lekiekeen pertsona nahiz erakunde eska-tzaileei. (4 puntu).

B) Azken sei urteetan hautagaiak ikerketa-jardunean lortu dituen merezimendu zientifikoak, akademikoak eta kudeaketakoak. (20 puntu).

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea Apartatu honetan, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeetan sartutako aldizkarietan argitaratu direnei, Ikerketa Jar-dueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoen arabera. Ebazpen horretan argitara eman ziren ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak. (4 puntu).

2.– Ikerketa-proiektuetan edo -jardueretan parte hartu izana. (4 puntu).

3.– Ekarpén bereziak ikerketa-arloan. Besteak beste, hauek balioetsiko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta zientzia-azpiegiturak sortzea. (4 puntu).

4.– Doktoretza-tesiak zuzentzea. (3 puntu).

5.– Patenteak eta ezagutza-transferentziako beste ekintza batzuk. (3 puntu).

6.– Nazioarte-mailako garrantzia duten biltzarretan parte hartzea. (2 puntu).

Puntu honetan, kontuan hartuko da hautagaien baten kasuan ikerketa-lana eten den egoera hauetakoren baten ondorioz: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitatasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera, edo liberazioa, honako kargu hauetakoren bat betetzeko bada: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Horretarako, ziurtatutako etenaldiarekiko proportzionalki luzatuko da ebaluatzeko ikerketa-jardueraren aldia, salbu eta 10 astetik gorako amatasun edo aitatasunagatiko etenaldietan, horietan seme edo alaba bakoitzeko urtebete luzatuko baita ebaluatzeko aldia; edonola ere, gehienez 6 urte gehiagoz luzatuko da ikerketa-jarduera kasu guztietan.

C) Azken sei urteetan, talde hartzaileko ikertzaile arduradunak lortu dituen merezimendu zientifikoak eta akademikoak. (12,5 puntu).

Puntu honetan, azpi-irizpide hauek baloratuko dira, honela:

1.– Ibilbide zientifikoa eta argitalpenen kalitatea Apartatu honetan, balio berezia emango zaie beren esparruko erreferentzia-indizeetan sartutako aldizkarietan argitaratu direnei, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalaren 2021eko abenduaren 23ko Ebazpenean jasotako irizpide espezifikoen arabera. Ebazpen horretan argitara eman ziren ebaluazio-esparru bakoitzean onetsitako irizpide espezifikoak. (2,5 puntu).

2.– Ikerketa-proiektuetan edo -jardueretan parte hartu izana. (2,5 puntu).

3.– Ekarpén bereziak ikerketa-arloan. Besteak beste, hauek balioetsiko dira: Europako ikerketa-partzuergoetan parte hartzea, Europako Ikerketa Kontseiluaren laguntzak lortzea, ikerketa-programak koordinatzea eta zientzia-azpiegiturak sortzea. (2,5 puntu).

4.– Doktoretza-tesiak zuzentzea. (2 puntu).

5.– Patenteak eta ezagutza-transferentziako beste ekintza batzuk. (1,75 puntu).

6.– Nazioarte-mailako garrantzia duten biltzarretan parte hartzea. (1,25 puntu).

D) Hautagaia hartuko duen zentroaren kalitatea, proiektua aurkeztu den zientzia-arloan. (5 puntu).

Unibertsitate-zentroen kasuan, zentro hautatuaren prestigioa baloratzeko, kasuan kasuko zentroak 2022ko Academic Ranking of World Universities sailkapenean (Shanghai rankinga) zein postutan dagoen hartuko da kontuan: 1–100 arteko postuetan daudenei, 5 puntu; 101–200 arteko postuetan daudenei, 4 puntu; 201–300 arteko postuetan daudenei, 3 puntu; 301–400. arteko postuetan daudenei, 2 puntu; 401–500. arteko postuetan daudenei, 1 puntu; eta 501. postuan eta hurrengoetan daudenei, 0,5 puntu.

B) eta C) letretan, 8. artikuluko i) eta j) letretan adierazitako dokumentuetan barne hartutako datuetatik abiatuz egingo da alderdi horien balorazioa, eta eskuratutako CVetan egiaztatu beharko da. Aurkeztutako ebidentziak bakarrik balioetsiko dira.

12. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Norgehiagokaren prozedura erabiliko da laguntzak emateko, zeina azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusita baitago, eta, betiere, printzipio hauen arabera: publikitate, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminazio-eza, eraginkortasuna xedeak betetzean, eta efizientzia lege horren 8.3 artikuluan adierazitako baliabide publikoen izendapenean eta erabileran.

Hartarako, deialdi bakoitzean aurkeztu eta onartu diren eskariak alderatuko dira, haien artean hurrenkera bat ezartzeko, 11. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideei jarraikiz; eta guztizko puntuazioaren % 50 gainditu eta balorazio handiena lortu dutenak bakarrik esleituko dira, hain justu ere agindu honetan 4. artikuluan kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, sexu ezberdineko ikertzaileen artean lortutako puntuazioan berdinketa egonez gero, ikertzaile emakumearen aldeko ebazpena emango da.

Sexu bereko ikertzaileen arteko berdinketak eskaerak betetzeko aplikazioak txikitik handira ematen duen ausazko zenbakiaren arabera ebatziko dira. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskaera-orrian agertuko da.

13. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Emandako laguntzak esleitzeko eta dagozkien zenbatekoak zehazteko, proposamena egingo du balorazio-batzordeak, eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebazpen bat emango, betiere sei hileko epean, deialdia EHAA-n argitaratzen denetik hasita.

Proposamenak hauek jasoko ditu: erakunde onuradunen zerrenda eta dagozkien zuzkidura ekonomikoak, dagoen kredituaren mugara arte xehatuak, eta, erabilgarri dagoen aurrekontuaren ondorioz laguntzarik jaso ez duten erreserben zerrenda. Horrez gain, ukatutako eskabideen zerrenda ere emango da, ukatzeko arrazoiak adierazita, baita baztertutako eskabideen zerrenda ere, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

Ebazpenak hauek jasoko ditu: espedientearen erreferentzia-zenbakia, erakunde onuraduna, laguntzaz baliatuko den ikertzailearen NANA, ebaluazioan erdietsitako guztizko puntuazioa, egonaldiaren hasiera- eta amaiera-datak, egonaldia egingo den zentroa eta herrialdea, eta zuzkidura ekonomiko xehatua (ordainsariak, bidaiak eta bisa).

2.– Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>). Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat helaraziko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>). Ziurtagiri elektronikorekin sartu beharko da bertara.

Abisua bidaliko da interesdunak eman duen gailu elektronikora edo helbide elektronikora, jakinarazpena egoitza elektronikoa eskuragarri duela adierazteko.

3.– Alde batera utzi gabe aurreko 2. apartatuan ezarritakoa, Ikerketa Zuzendaritzak argitalpen berri bidali ahal izango die interesdunei, SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpen eginaren ondorioz izango.

4.– Uko-egiteen kasuan, erreserben zerrendan ageri diren eskatzaileei emango zaizkie laguntzak, dagokion ebazpenaren bidez, baldin eta uko-egite horiek emate-ebazpen hau argitaratu eta hurrengo 10 egunetan egiten badira. Laguntza horiek emandako azken laguntzaren ondorengo lekuan dauden pertsonen emango zaizkie.

Horretarako, laguntzak emateko proposamena jakinaraziko die laguntzak emango dituen organoak interesdunei, 10 eguneko epe luzaezinean onar dezaten. Behin proposamena onartuta, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak laguntza onartzeko ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko die.

5.– Baldin eta artikulua honen 1. apartatuan ezarritako epean berariazko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute beren eskariak ezetsiak izan direla.

6.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7.– Emandako laguntzen zerrendak publikotasuna izan dezan, EHAAan argitaratuko da, jakinarazpen hori egin eta 6 hilabeteko epean.

8.– Eskaeraren unean 6.3.a) artikuluan adierazitakoa betetzen ez duten hautagaiek eskakizun hori betetzen dela ziurtatzeko dokumentua aurkeztu beharko dute, laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik 15 eguneko epean. Hori egin ezean, laguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta 12. artikuluan deskribatutako prozedurarekin bat emango dira askatutako kantitateak.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek bete beharko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan adierazitakoak ere, eta, horien artean, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenari buruzko jakinarazpena egiten denetik hamar egun igarota onuradunak berariaz uko egin ez badio laguntzari, onartu duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza zein helburutarako eman zen, hartarako erabiltzea.

c) Egonaldia osorik betetzea.

d) Lekualdatutako ikertzaileari emandako zenbatekoak ordaintzea. Erakunde onuradunak, iker-tzaileak destinoko zentroan hasiko dela jakinarazitakoan eta organo emailetik laguntzaren % 80ko ordainketa aurreratua jasotakoan, lekualdatutako ikertzaileari ordainduko dio zenbateko hori.

Baldin eta zentro onuradunak bere gain hartu baditu bidaia, ostatu edo bisari dagozkion zenbatekoak, horiek ez zaizkio ordainduko ikertzaileari.

Behin jarduera amaitu eta laguntza likidatzean, likidazio horren ondoriozko zenbatekoa helaraziko dio erakunde onuradunak ikertzaileari.

e) Horiek gauzatzen direnetik 15 eguneko gehieneko epean, honako hauek jakinaraztea: destinoko zentroetako altak, jarduera-eteteak, aldi bateko kanpoan izateak, uko egiteak eta gainerako gorabeherak; guztia ere, batetik, Ikerketa Zuzendaritza horretaz guztiaz jakitun izan dadin, eta, bestetik, beharrezko bada, berariazko baimena eman dezan.

f) Deialdi honen kariaz jasotako dirulaguntzei buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunen barruan, eskatzen duten informazio guztia ematea.

g) Programa honen babespean egindako jarduerak dakartzaten emaitzak argitaratu edo zabaldu behar izanez gero, berariaz aipatzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Ikertzaile Dokto-reentzako Mugikortasun Programaren finantzaketa duela.

15. artikulua.– Laguntzari uko egitea.

1.– Ikerketako zuzendariari jakinaraziko zaizkio uko-egiteak, erakunde onuradunak eta laguntzaren ikertzaile onuradunak sinatutako idazki baten bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko egiteko arrazoiak eta uko-egite horrek zein egunetatik aurrera izango dituen ondorioak. Uko-egite hori aplikazio telematikoaren bidez jakinarazi beharko da, ondorioak izan baino 10 egun lehenago.

2.– Uko-egiteak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez onartuko dira.

Uko-egite hori gauzaten den egun berean hasiko dira haren ondorio ekonomikoak. Hala ere, bidegabeko ordainketak gauzatu badira, diru-zenbateko horiek itzuli beharko dira, deialdiaren baldintzen gutxieneakoak betez gero, betiere.

16. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

1.– Erakunde onuradunari egingo zaio laguntzaren ordainketa.

2.– Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi alditan.

Haietarik lehenengoa, emandako laguntzaren % 80koa, erakunde onuradunak zentro hartzailean hasi izanari buruzko egiaztagiria aurkeztu ostean egingo da, Ikerketa Zuzendaritzan aurkeztu ere.

Bigarren zatia, berriz, 2024. urtean ordainduko da, jarduera bukatzean. Zehazki, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoa ordainduko da, hurrengo artikuluan eskatutako dokumentuak aurkeztu ostean, betiere.

3.– Irailaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, zeinaren 50.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, dirulaguntzak eta laguntzak esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango baita itzulketa- edo zehapen-prozedura oro amaituta egotea, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo horko erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzengatik hasi eta artean izapidetzen ari direnak.

17. artikulua.– Dirulaguntzak justifikatzea eta haien segimendua.

1.– Laguntza jasotzen duten erakundeek justifikatu beharko dute finantzaketaren xede zen jarduera burutu dutela; horretarako, informatika-aplikazioaren bitartez, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, hilabeteko epean, jarduera bukatzen denetik hasita:

a) Egindako egonaldiaren gainean, ikerketa-talde hartzaileko arduradunak emandako egiaztagiria, zeinean berariaz zehaztuko baitira hasiera- eta bukaera-egunak.

b) Amaierako memoria, balantze zientifikoarekin batera. Bertan deskribatuko da egindako lana, argitalpenen, patenteen edo ikerketaren bestelako emaitzen erreferentzia barne hartuta. Erakunde onuradunaren legezko ordezkariaren oniritzia jaso beharko du dokumentuak.

c) Emandako laguntzaz egindako gastuaren ziurtagiria. Ostatu-gastuei, bidaia-gastuei eta bisa-izapidetzeari –halakorik balego– dagozkien fakturak edo dokumentu baliokideak aurkeztuko dira. Erakunde onuradunaren legezko ordezkariak sinatu beharko du dokumentu hori.

d) Erakunde onuradunak ikertzaileari egindako ordainketen egiaztagiria.

2.– Justifikatutako gastuak emandako dirulaguntza baino txikiagoak badira eta ez-beteterik ez badago, dirulaguntza gutxitu egingo da justifikatu ez den kopurua kenduta, eta jasotako dirulaguntzak proportzioan itzuliko dira, dagokion prozedurari jarraituz. Prozedura hori Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak amaituko du ebazpen batez, non hasierako ebazpena aldatuko baita. Murrizketa horrek ez dio eragingo ostatu-gastuak justifikatu beharrari.

3.– Egoki iritziz gero, Ikerketa Zuzendaritzak informazio osagarria eskatu ahal izango du, eta, horrez gain, emandako laguntzaren segimendua egiteko ardura emango dio zuzendaritza horri atxikitako pertsona bati edo batzuei, laguntza zertan erabili den ikusteko.

18. artikulua.– Laguntzen bateraezintasuna.

Laguntza hauek bateraezinak dira helburu bererako ematen den beste edozein laguntzarekin.

19. artikulua.– Ez-betetzeak eta laguntza itzultzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), erakunde onuradunek ezin izango dute laguntzaren ordainketa eskatu, eta aurretik zerbait ordaindu bazaie, batetik, jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, eta, bestetik, laguntza ordaindu zenetik aurrera sortzen diren berandutza-interesak eskatuko dira, hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Onuradunek, osorik edo zati batean, bete gabe utzi badituzte deialdi honetan edo dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean xedatutako oinarriak, edota dirulaguntza emateko ebazpenean erabakitako baldintzak.

b) Dirulaguntza emateko eskatzen diren datuak ezkutatu edo aldatzen badituzte edo eskatutako informazioa iruzurrez manipulatu badute.

c) Proposatutako helburuekin edo ezarritako epeekin bat ez datorren jarduera burutzen badute, Ikerketa Zuzendaritzaren baimenik gabe.

d) Ikerketa Zuzendaritzak, diruz lagundutako egintzen segimendua egiterakoan, egiaztatzen badu gastua ez datorrela bat proposatutakoarekin eta esleitutakoarekin.

2.– Halaber, laguntza emateko kontuan izandako baldintzetan jasotako aldaketa orok berekin ekar dezake hura emateko ebazpena aldatzea, baldin eta onuradun izateko deialdi honen 1. artikuluan eta 6. artikuluan 1., 2., eta 3. zenbakietan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluan ezarritakoarekin bat etorritik, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak adieraziko du, ebazpen baten bidez, laguntza jasotzeko eskubi-dea galdu dela eta, hala behar denean, diru-kopuruak eta legeko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli behar direla (698/1991 Dekretua, Dirulaguntzak itzultzeko prozedura orokorra arautu zuena; 1992ko otsailaren 7ko EHAA). Dena den, hori egin baino lehen, prozedurari dagozkion izapideak egin beharko dira, eta behar izanez gero, beste ekintza batzuk ere gauzatuko dira.

4.– Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, ondorio guztietarako.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

20. artikulua.– Datuen babesa.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Ikerketa sustatzeko laguntzak eta dirulaguntzak. Informazio hau barne hartuko du:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezeztzeko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai dago helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/054300-cap2-es.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako laguntzak ebazteko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urterako aurrekontu orokorretan, hala xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espedienteak aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2022ko abenduaren 1a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 22a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2022ko abenduaren 1a, osteguna

I. ERANSKINA

ESKAERA-INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO MUGIKORTASUN-PROGRAMA		

A.– ERAKUNDE ESKATZAILEA ETA HAUTAGAI ARDURADUNA

ERAKUNDE ESKATZAILEA			
Izen soziala			
IFK			
Helbidea		PK	
Telefono-zenbakia			
Helbide elektronikoa			

HAUTAGAIA					
Abizenak, Izena				Jaioteguna	
NAN/AIZ		Sexua	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa	<input type="checkbox"/> Emakumezkoa	
Helbide elektronikoa		1. telefonoa		2. telefonoa	
Doktore-titulua zein datatan lortua					

Departamentua	
Ikastetxea	
Arloa	

2022ko abenduaren 1a, osteguna

B – EGONALDIAREN EZAUGARRIAK

ZER PROIEKTU / IKERKETA-PLAN DEN LAGUNTZAREN XEDE

Izenburua			
Arlo sozioekonomikoa			
Hasiera-data		Amaiera-data	

APLIKAZIO-ZENTROA (EGONALDIA NON EGINGO DEN)

Entitatea			
Ikastetxea			
Departamentua			
Herria		Herrialdea	
Helbide osoa			
Bisa izapidetzea		Bidaia-asegurua ezkontidearentzat eta/edo seme-alabentzat ere baliagarri izatea (**)	

(**) Eskaera-orriari dokumentu bat erantsi behar zaio, datu hauek dituen: Aseguruan sartu beharreko pertsona guztien izen-abizenak, jaioteguna eta NAN-zk.

Erantsi familia-liburuaren fotokopia edo haren baliokidearena.

Gorde guztiak dokumentu bakar batean, eta igo aplikaziora.

Aplikazio-zentroaren ikertzaile-taldeko arduraduna

Izena		1. abizena		2. abizena	
-------	--	------------	--	------------	--

HAUTAGAIA HARTUKO DUEN ZENTROAREN KALITATEA, HARK AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ARLO ZIENTIFIKOAREKIKO

ARWU sailkapenean (Shangai sailkapena) duen postua	
Beste sailkapen batzuetan (zehaztu sailkapena) duen postua	
Zentro hartzailearen beste kalitate-adierazle batzuk	

2022ko abenduaren 1a, osteguna

C.– LEHENDIK JASOTAKO MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZAK

Jaso al ditu hautagaiak ikertzaileentzako hobekuntza- eta mugikortasun-programaren laguntzak?

BAI EZ

Laguntza-programa	Hasiera-	Amaiera-	Erakunde finantzatzailea

D.– ALDI BATERAKO ETENA IKERKETA-LANEAN

Azken 6 urteotan, izan al da etenaldiren bat ikerketa-lanean egoera hauetako baten ondorioz?: iraupen luzeko aldi baterako lanerako ezintasuna; amatasuna; aitasuna; edoskitze-aldiko arriskua; adopzioa edo harrera; edo liberazioa honako kargu hauetakoren bat betetzeko: unibertsitateko pertsona bakarreko kudeaketa-karguak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko zuzendaritza-karguak eta administrazio publikoetako karguak. Adierazi dagokiona.

BAI EZ

Etenaldiaren arrazoa	Hasiera-	Amaiera-	Oharrak

II. ERANSKINA

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Eskatzaileak hau ADIERAZTEN DU:

- 1.– ESKATU DIOLA / EZ DIOLA ESKATU (erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen bati.
BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen kopia erantsi behar da.
- 2.– LORTU DUELA / EZ DUELA LORTU (erantzun dagokiona) helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.
BAIETZ erantzunez gero, emate-agiriaren kopia erantsi behar da.
- 3.– SARTUTA DAGOELA / EZ DAGOELA SARTUTA (erantzun dagokiona) itzulketa- edo zehazpen-prozedura batean.
BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.
- 4.– BADUELA / EZ DUELA (erantzun dagokiona) ordainketarik egiteke, dirulaguntzak itzultzea dela-eta.
BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia erantsi behar da.
- 5.– BADUELA / EZ DUELA (erantzun dagokiona) dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalen bat edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren bat.
BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar du.
- 6.– EZ DAGOELA / BADAGOELA (erantzun dagokiona) sartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako gainerako debekuetako batean.
BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia erantsi behar da.
- 7.– BAIMENTZEN DUELA / EZ DUELA BAIMENTZEN (erantzun dagokiona) organo kudeatzaileari egiazta dezan uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18. eta 19. artikuluetan jasotako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela.
Ezetz erantzunez gero, dagozkion egiaztagiriak erantsi beharko dira eskabidearekin batera.
- 8.– Onuradun izateko betekizun guztiak betetzen dituela.
- 9.– Konpromisoa hartzen duela Hezkuntza Sailaren Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatzen eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dion egoera-aldaketa oro, baita edozein administrazioaren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

Izpta.:

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira eta izen honetako tratamendu-jardueran sartuko dira: Dirulaguntzak eta laguntzak.

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

Helburua: Finantzaketa eta bultzada ikerketari

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Hartzaileak:

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa, BOE, EHAA.

Eskubideak: Datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan:

www.euskadi.eus/transparencia-y-derecho-a-la-informacion/web01-ejeduki/es/transparencia/054300-capa2-es.shtml

Ofiziotzko egiaztapena:

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizioz egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

– Zerga-betebeharrak egunean daudela (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean daudela (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN).

Non eta interesduna horren aurka agertzen ez den modu arrazoituan. [Aurka egiteko eskubidea erabiltzea](#)